

2022/ 2023 ikasturtea

**ERDITU ONDORENGO DEPRESIOA SAIHESTEKO ERIZAINNTZA-
ZAINKETAK**

Uxue Azpiazu Balerdi

LABURPENA

Sarrera: erditu ondorengo depresioa erdiondoan sortzen diren osasun arazo garrantzitsuenen artean kokatzen da, bere prebalentzia altua eta emakume eta haurraren sortzen dituen ondorio negatibo eta larriak direla-eta. Horregatik, gaitz honen lehen mailako prebentzioa egitea garrantzitsua da; eta honetan, erizainek funtsezko eginkizuna daukate. Gaur egungo prebentzio-terapia gehienak ez-farmakologikoak dira, baina, hauen eraginkortasuna ez dago argi.

Helburuak: lanaren helburu nagusia emakumeen erditu ondorengo depresioa saihesteko erizaintza-zainketa eraginkorrak identifikatzea da.

Metodologia: berrikuspen narratibo honetan, lehenik, ikerketa-galderatik abiatuta PIO/PICO egitura formulatu da. Ondoren, hitz gakoak eta beraiekin lotutako deskriptoreak aurkitu dira. Gero, PIO/PICO egiturako atal ezberdinak operadore boolearrekin konbinatu dira, bilaketa estrategia sortuz, eta hau datu-base ezberdinetan txertatu da. Halaber, bilaketan ateratako emaitzei iragazkiak eta barneratze- eta baztertze-irizpideak aplikatu zaizkie. Bukatzeko, hautatutako artikulu guztiei irakurketa kritikoa egin zaie eta Haynes-en piramidea erabiliz ebidentzia-maila zehaztu da.

Emaitzak: erditu ondorengo depresioa saihesteko erizaintza-zainketak hiru multzotan sailkatu dira, eta ondoren, hauen eraginkortasuna aztertu da. Batetik, interbentzio psikosozialak daude: bizi-estiloan oinarrituriko guraso izateko prestakuntzaren heziketa, depresioari buruzko heziketa, "mindfulness"-ean oinarrituriko heziketa, erdiondoko erizain eta emaginen etxeetako bisita intentsiboak eta interbentzio telemedikoak. Bestetik, interbentzio psikologikoak daude: psikoterapia interpersonala, terapia kognitibo-konduktuala, pertsonarengan fokuratzean oinarrituriko psikoterapia eta konponbideetan zentratutako aholkularitza. Eta bukatzeko, beste mota batzuetako interbentzioak daude: ariketa fisikoa, edoskitzea eta erditzean derrigortze informala saihestea.

Eztabaida: interbentzio ezberdinen inguruan iritzi eta emaitza kontrajarri asko dago. Izan ere, ikerketa bakoitzean ezberdinak dira interbentzioaren emate-unea, populazioa, emakume-kopurua, iraupena, edukia, emaila eta eraginkortasuna; hau da, ez daude bateratuta.

Ondorioak: interbentzioak onuragarriak dira erdiondoko depresioa saiheste aldera, baina, hauen eraginkortasuna zalantzan dago; beraz, eskala handiagoko ikerketa gehiago behar dira. Horrez gain, interbentzioak emateko moduen inguruan dauden iritzi kontrajarriak direla-eta, irizpideak bateratzearen beharra dago. Azkenik, gaitz honen prebentziorako multidiziplinarki jardutea esperantzagarria izan liteke.

Hitz gakoak: erdiondoko depresioa, lehen mailako prebentzioa, erizaintza-zainketak.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. HELBURUAK	3
3. METODOLOGIA	3
3.1. Bilaketa bibliografikoaren estrategia	3
3.2. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak	4
4. EMAITZAK	5
4.1. Erditu ondorengo depresioa saihestera bideratuta dauden interbentzio psikosozialak, interbentzio psikologikoak eta beste mota batzuetako interbentzioak .	5
4.1.1. Interbentzio psikosozialak	5
4.1.2. Interbentzio psikologikoak	7
4.1.3. Beste mota batzuetako interbentzioak	9
4.2. Aurretik azaldutako erizaintza-zainketen eraginkortasuna erditu ondorengo depresioa saiheste aldera	10
5. EZTABAIDA	14
6. ONDORIOAK	16
7. BIBLIOGRAFIA	17
8. ERANSKINAK	20
1. Eranskina. PIO/PICO egituran oinarrituz, bilaketa bibliografikoa egiteko erabilitako hitz gako eta deskriptoreak.....	20
2. Eranskina. Datu-baseetako emaitzei aplikatutako barneratze- eta baztertze-irizpideak.....	20
3. Eranskina. Datu-baseetan egindako bilaketa bibliografikoaren emaitzak.....	21
4. Eranskina. Artikuluen irakurketa kritikoa CASPe eta STROBE-ren bidez.	23
5. Eranskina. Datu-baseetan aurkitutako artikuluen informazioa.	35
6. Eranskina. Heziketen adibideak.	48
7. Eranskina. Interbentzio bakoitzaren eraginkortasuna, erdiondoko depresioa saiheste aldera.....	50

IRUDIEN AURKIBIDIEA

1. Irudia: Haynes-en piramidea.....	4
--	----------

LABURDUREN HIZTEGIA

- BVS: Biblioteca Virtual en Salud
- CASPe: Critical Appraisal Skills Programme Español
- CESD: Ikerketa Epidemiologikoko Zentroaren Depresioaren Eskala
- DeCS: Descriptores en Ciencias de la Salud
- DSM-V: Manual Diagnóstico y Estadístico de Trastornos Mentales-V
- EPDS: Erditu Ondorengo Depresioaren Edinburgh-eko Eskala
- IC: Konfiantza-Tartea
- MD: Ezberdintasun Esanguratsua
- MeSH: Medical Subject Headings
- MSPSS: Babes Sozialaren Pertzepzioaren Eskala Multidimentsionala
- OME: Osasunaren Mundu Erakundea
- OR: Odds Ratio
- PIO/PICO: Pazientea edo Arazoa (P), Interbentzioa (I), Konparaketa (C) eta Emaitzak (O)
- RR: Arrisku Erlatiboa
- STROBE: Strengthening The Reporting of Observational Studies in Epidemiology

1. SARRERA

Gaur egun, depresioa osasun publikoko arazotzat hartzen da, bere intzidentzia eta kostu sozial altuagatik (1). Mundu osoan, populazio osoaren % 3,8-ak pairatzen du, desgaitasunaren kausa nagusia da eta morbiditate-karga orokorrari modu esanguratsuan eragiten dio (2). Gaitz afektibo hau gizateriaren historia guztian zehar egon da eta bere adierazpenen artean gogo-aldartearen alterazioak eta alterazio kognitibo, psikomotore eta begetatiboak daude (1).

Depresioaren barnean, zehazki, nahaste depresibo nagusiaren barnean, erditu ondorengo depresioa sailkatzen da batik bat, "Manual Diagnóstico y Estadístico de Trastornos Mentales-V"-ren (DSM-V) arabera (3). Gaitz hau erditu ondorengo tristura bizia eta labiltate emozional larriagatik bereizten da. Normalean, erdiondoko laugarren astean hasten da eta seigarren-zortzigarren astera arte irauten du; baina, badaude kasuak non lehenengo urte osoa igaro arte, edo hiru edo lau urtera arte irauten dutenak (4).

Gehituz, erditu ondorengo depresioa erdiondoan sortzen diren osasun arazo garrantzitsuenen artean kokatzen da, bere prebalentzia altua eta emakume eta haurraren sortzen dituen ondorio negatibo eta larriak direla-eta (5). Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, gaitz honen mundu osoko prebalentzia % 13-koa da, eta Espainiakoa % 12,9-koa; mundu osoko intzidentziari dagokionez, % 10-15-ekoa da. Gainera, alterazio hau ideia gintza suizidak izateko probabilitatearen handitzearekin lotzen da, erdiondoko emakumeen heriotzen % 20-a suizidio bidez izanik (3).

Oro har, nahasmen honen sintoma ohikoenak ondorengoak dira: gogo-aldarte tristea, kontzentratzeko zailtasunak, nekea, haurraren interes falta, ama txarra izatearen sentimendua, insomnioa, bere buruari edota haurrari min egiteko beldurra eta bizitzarekiko interesa edota gozamina sentitzeko ezgaitasuna. Sintoma hauez gain, beste batzuk deskribatu dira ere bai, hala nola, maizko negarra, gose falta, askotariko sintoma somatikoak, egoera estresagarriari aurre egiteko ezintasuna eta autoestimu baxua (3). Gainera, erdiondoko depresioa jasaten duten emakumeek depresioa garatzeko arrisku bikoitza daukate hurrengo bost urteetan. Gehituz, aurretik aipatu bezala, haurraren ondorio negatiboak ditu ere bai, adibidez, atxikimendu ezegonkorra, malnutrizioa eta garapen kognitibo eta emozionalaren atzerapena (6).

Halaber, erdiondoan erronka aldia da emakumeentzat, izan ere, aldaketa psikologiko eta fisiologiko anitz ematen dira, alterazio afektiboak sortzeko sentikortasuna handituz. Hala

ere, gaixotasuna garatzeko arriskua handitzen duten faktore-multzoak daude, hauek faktore psikiatriko, sozial eta interpersonalak dira. Faktore psikiatrikoen artean, batetik, arrisku handikoak aurkitzen dira, hala nola, erditu aurreko depresio sintomak, autoestimua baxua eta erditze-inguruko antsietatea; eta bestetik, arrisku moderatukoak, zehazki, nahaste depresiboaren aurrekariak eta erdiondoko disforia. Faktore sozial eta interpersonalen artean, batetik, arrisku moderatukoak aurkitzen dira, adibidez, bizitzako gertakizun estresagarriak, babes-sozial baxua eta bikote-arazoak; eta bestetik, arrisku baxukoak, zehazki, diru-sarrera baxuak eta haurdunaldi ez-desiratuak. Faktore guzti hauez gain, hainbat predisposizio daude, arrisku baxukoak direnak: abusu fisikoa, preeklanpsia, hiperemesia, erditzearekin lotutako mediku-konplikazioak, erditze-instrumentalak, erditze goiztiarrak eta gehiegizko odol-jarioa (3).

Jarrantuz, erditu ondorengo depresioa daukaten emakumeak identifikatze aldera, hainbat eskala, inbentario, galdeketa... erabiltzen dira, baina, gehien erabiltzen direnak ondorengo bi tresnak dira: batetik, Erditu Ondorengo Depresioaren Edinburgh-eko Eskala (EPDS) (% 59-100-eko sentsibilitatea eta % 49-100-eko espezifikotasuna du); eta bestetik, Ikerketa Epidemiologikoko Zentroaren Depresioaren Eskala (CESD) (% 60-eko sentsibilitatea eta % 92-ko espezifikotasuna du) (3). Hala ere, kasuak identifikatzeko zailtasunagatik eta gaitzak eragiten dituen ondorio kaltegarriengatik, adituek azpimarratzen dute alterazio hau jasateko arriskua murrizteko eta arazo pertsonal eta familiar larriak ekiditeko neurririk hoberena prebentzioa dela. Beraz, aipagarria da erizainek, beraien funtzioetako bi prebentzioa eta osasunaren sustapena izanik, funtsezko eginkizuna dutela erdiondoko depresioaren prebalentzia altua aldatze aldera (1).

Azkenik, gaur egungo prebentzio-terapia gehienak ez-farmakologikoak dira, baina, hauen eraginkortasuna ez dago argi (3). Beraz, hau kontuan harturik eta erditu ondorengo depresioaren prebalentzia altua, prebentzioaren potentzial handia eta erizainek prebentzian daukaten funtsezko eginkizuna ikusita, ondorengo lan hau egitea erabaki da, jarraian agertzen diren helburuak ardatz gisa harturik.

2. HELBURUAK

Helburu nagusia:

- Emakumeen erditu ondorengo depresioa saihesteko erizaintza-zainketa eraginkorrak identifikatzea.

Helburu zehatzak:

- Erditu ondorengo depresioa saihestera bideratuta dauden interbentzio psikosozialak, interbentzio psikologikoak eta beste mota batzuetako interbentzioak azaltzea.
- Aurretik azaldutako erizaintza-zainketen eraginkortasuna ezagutzea, erditu ondorengo depresioa saiheste aldera.

3. METODOLOGIA

Lan hau berrikuspen narratibo bat izanik, hau da, gaiaren inguruko literatura-multzo bat kritikoki laburbildu eta ondorioak aurkezten dituen dokumentu bat izanik, ebidentzian oinarrituriko informazioa bilatu da, jarraian ageri den metodologia erabiliz.

3.1. Bilaketa bibliografikoaren estrategia

Lehenik eta behin, bilaketa estrategia eraikitzeko, ikerketa-galderatik abiatuta PIO/PICO egitura formulatu da. Ondoren, hitz gakoak eta beraiekin lotutako "Descriptores en Ciencias de la Salud" (DeCS) eta "Medical Subject Headings" (MeSH) deskriptoreak aurkitu dira (*ikus 1. eranskina*).

Gero, bilaketa bibliografikorako bilaketa-estrategia sortu da, PIO/PICO egiturako atal ezberdinak "AND" eta "OR" operadore boolearrekin konbinatuz; eta ondorengo datu-baseetan txertatu da artikuluak bilatzeko: PubMed, Cuiden, Dialnet, "Biblioteca Virtual en Salud" (BVS) eta Cochrane.

Gehituz, bilaketan ateratako emaitzei iragazkiak aplikatu zaizkie:

- Gehienez orain dela 10 urteko artikuluak izatea.
- Euskaraz, gaztelaniaz edota ingelesez idatzitako artikuluak izatea.


Jarraituz, iragazkiak aplikatuta ateratako emaitzei barneratze- eta baztertze-irizpideak aplikatu zaizkie, artikuluen izenburu eta laburpenak irakurriz, lan honetarako baliaagarriak diren artikuluekin soilik geratuz (*ikus 2. eranskina*).

3.2. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak

Aurretik aipatutako bilaketa bibliografikoa eginez, guztira 398 artikulua aurkitu dira. Iragazkiak aplikatu ondoren, 220 artikulua geratu dira; eta barneratze- eta baztertzearizpideak aplikatu eta gero, 19 artikulua ezberdin geratu dira (*ikus 3. eranskina*).

Horrez gain, 19 artikulua hauen erabilgarritasuna ziurtatzeko, irakurketa kritikoa egin da. Horretarako, alde batetik, "Critical Appraisal Skills Programme Español" (CASPe) erabili da, berrikuspenak, ausazko diseinu esperimental garbiak eta diseinu kuasi-esperimentalak aztertzeko; eta beste aldetik, "Strengthening The Reporting of Observational Studies in Epidemiology" (STROBE) erabili da, zeharkako ikerketak aztertzeko. Denak ikerketarako egokiak direla ziurtatu da, beraz, lana burutzeko 19 artikulua erabili dira (*ikus 4. eranskina*).

Azkenik, dokumentu hauen ebidentzia-maila zehazteko Haynes-en piramidea erabili da (*ikus 1. irudia*).



1. Irudia: Haynes-en piramidea. **Iturria:** *propioa, ondorengo bibliografian oinarritua eta egokitua: (7).**Oharra: piramidearen alboan agertzen diren zenbakiak bibliografia ataleko zenbakiekin bat datoz.

Beraz, berrikuspen narratibo honetan, 10 ikerketa original (6 ausazko esperimental garbi, 2 kuasi-esperimental eta 2 zeharkako), 7 sintesi eta 2 sintesien sinopsi erabili dira (*ikus 5. eranskina*). Horrez gain, OME-ren web-eko depresioari buruzko atala erabili da.

4. EMAITZAK

Aipaturiko helburuak kontuan harturik, erditu ondorengo depresioa saihesteko erizaintza-zainketak hiru multzotan sailkatu dira, interbentzio-motaren arabera: interbentzio psikosozialak, interbentzio psikologikoak eta beste mota batzuetako interbentzioak. Lehenik eta behin, hauek deskribatuko dira; eta ondoren, aipaturiko zainketen inguruan aurkitu den eraginkortasuna azalduko da.

4.1. Erditu ondorengo depresioa saihestera bideratuta dauden interbentzio psikosozialak, interbentzio psikologikoak eta beste mota batzuetako interbentzioak

Erizainaren funtzioetako bat prebentzioa da, beraz, erdiondoko depresioaren prebentzioa erizainak egin dezakeela esan daiteke. Lehen mailako prebentzioak gaitza saihestea edo, etorkizunean gaitza jasaten bada, honen larritasuna murriztagoa izatea du helburu, eta hainbat motetako zainketen bidez egin daiteke.

4.1.1. Interbentzio psikosozialak

Batetik, zainketa psikosozialak daude, hauek babes soziala emanez osasun mentalean laguntzen duten zainketak dira; erizainaren presentziak, entzute enpatikoak eta kalitatezko atentzioak eragin handia dutelako emakumearen gogo-aldartean (4). Mota honetan, heziketa sartzen da batik bat. Izan ere, egoerari buruzko informazioa emanez eta zalantzak argituz, emakumeen ezagutzak handitzen dira, eta ondorioz, ezjakintasunak sorturiko une estresagarri edota desatsegin asko saihesten dira. Hala ere, hainbat heziketa ezberdin eman ahal dira (8).

Bizi-estiloan oinarrituriko guraso izateko prestakuntzaren heziketa

Haurdunaldian ematen den heziketa ohikoena bizi-estiloan oinarrituriko guraso izateko prestakuntzaren heziketa da. Heziketa hau osasun-zentroan erizain/emagin batek ematen du eta erditu aurretik izaten da, zehazki, azken hiruhilekoan. Baita, bikotea gonbidatuta egoten da ere. Heziketan eskaintzen den informazioa eta ordu kopurua profesionalaren arabera da, baina, orokorrean 3-10 saio egiten dira eta ondorengo gaiez informatzen da: erditzea, jaioberriaren zainketak, edoskitzea, loaren higieena, nutrizioa, ariketa fisikoa, bakoitzak bere buruarekiko duen irudia, erdiondoko depresioa, harreman sexualak eta bestelako harreman sozialak (6, 8, 9, 10) (*ikus 6. eranskina*).

Depresioari buruzko heziketa

Beste mota bateko heziketa depresioari buruzkoa da, hau gehienetan erdiondoan ematen da eta depresioari aurrea hartzea eta, sintomak badaude, garaiz detektatzea eta tratatzea du helburu. Hala ere, heziketa hau eskaintzeko bi modu daude: batetik, alta-garaian ama-haur unitateko erizain/emaginak eskainiz; eta bestetik, erdiondoko 2.-6. asteen artean, etxeko bi bisitetan, osasun-zentroko erizain/emaginak eskainiz. Heziketaren edukia erizainaren arabera aldatu daiteke, baina, orokorrean, berdina azaltzen da: erdiondoko depresioaren maiztasuna, prebalentzia, sintomak, kausak, arrisku-faktoreak, tratamendu mota ezberdinak, autozainketa, prebentziorako gomendioak eta bere eragina ama, haur eta familiarengan (5, 11) (*ikus 6. eranskina*).

“Mindfulness”-ean oinarrituriko heziketa

Halaber, “mindfulness”-a gorputz eta buruaren kontzientzia oraindira eramatean oinarritzen da, iraganean eta etorkizunean pentsatu gabe. Beraz, praktika honekin, erlaxatzen eta oreka egoki bat lortzen ikasten da, estresa eta antsietatea murriztea lortuz (4). Praktika honen inguruko heziketak haurdunaldiko azken hiruhilekoan, osasun-zentroan eta taldeka ematen dira. Emaileak “mindfulness”-ean aditua den irakasle bat eta emagin bat izan ahal dira; izan ere, saio hauetan bi profesional hauen ezagutzekin, erditzeko-mina eta honekiko beldurra murrizten laguntzen duten teknikak irakatsi ahal dira. Adibidez, profesionalak azaldutako teknikak Nancy Bardack-en “*Mindful birthing: training the mind, body, and heart for childbirth and beyond*” liburuan oinarritu daitezke (12). Gainera, heziketaren iraupena emaileen araberakoa da, adibidez, Duncan *et al.*ek (12) diseinaturikoak 2,5 egun irauten ditu; aldiz, Pan *et al.*ek (13) diseinaturikoak 8 aste, astero 3 orduko saio bat emanez eta emakumeei asteko sei egunetan etxean praktikatzea animatuz (*ikus 6. eranskina*).

Erdiondoko erizain eta emaginen etxeetako bisita intentsiboak

Gehituz, erdiondoan baliagarriak dira heziketaz aparteko aurrez aurreko interbentzio psikosozialak, hala nola, erdiondoko erizain eta emaginen etxeetako bisita intentsiboak. Bisitetan, profesionalak egoera (ama eta haurrarena) baloratzen du eta horren araberako informazioa eskaintzen du; horrela, erdiondoa kontrolatzen/zuzentzen da. Oro har, zainketa hauek gurasoei segurtasun sentrazio bat ematen diete; batetik, jasotzen duten babes sozialarengatik; eta bestetik, dituzten zalantza edota kezka guztiak argitzeko aukera bat delako. Gainera, interbentzio honen iraupena profesionalaren araberakoa da ere bai; adibidez, lehen bi hilabeteetan, emagina astean behin joan daiteke emakumea bisitatzerara (8).

Interbentzio telemedikoak

Interbentzio psikosozialekin amaitzeko, esan beharra dago gaur egun aurrez aurrekoak ez diren interbentzio psikosozialak nagusitzen ari direla, hauek interbentzio telemedikoak dira: mugikor bidezko babesa, mugikorreko aplikazioak, komunikabideak eta webguneak. Batetik, mugikor bidezko babesa emakumeak erizain/emaginari edota alderantziz deitzean oinarritzen da; emakumearen, haurraren edota edoskitzearen egoera baloratzeko, zalantzak argitzeko, gurasoak lasaitzeko eta beharrezkoa izanez gero, kontsultara bideratzeko. Bestetik, mugikorreko aplikazioak, komunikabideak eta webguneak erizain/emaginek sorturiko informazio-emate guneak dira. Osasun-zentroetan erizain eta emaginek interbentzio hauen berri eman dezakete eta erabiltzaileek nahi duten unean erabili ditzakete, zalantzak kontsultatu edota informazioa jasotzeko (14). Gainera, profesional bakoitzak mugikor-deiak nahi adina, nahi duen momentuan eta nahi duen modura bideratuta egin ditzake. Normalean, guztira 3-6 dei izaten dira, aste bateko tartea utziz dei batetik bestera. Adibidez, ondorengo modu honetara egin daiteke: osasun-zentroko erizain berak erdiondoko 10. egunetik aurrera hiru aldiz deituz, aste bateko tartearekin, hauek 5-10 minutuko deiak izanik (14, 15).

4.1.2. Interbentzio psikologikoak

Interbentzio psikologikoei dagokienez, hauek bakoitzaren alderdi psikologikoa zaintzen laguntzen eta irakasten duten interbentzioak dira. Psikoterapiak psikologoek beraien kontsulta pribatuetan ematen dituzte, beraz, erizain/emaginek emakumeei hauek joatea gomendatu dezakete. Baita, osasun mentalean espezializatuta dauden erizainek edota terapiak ematen adituak diren erizain/emaginek ere psikoterapia hauek osasun-zentroan eskaini ahal ditzakete. Hauek erditu aurretik edota ondoren eta indibidualki edo taldeka eman daitezke (8, 9). Talde-terapiak dagokienez, gutxi gorabehera 8-10 emakumeez osaturik egoten dira eta aukera optimo bat da amatasuneko trebetasunak lortzeko, depresioa eta estresa saihesteko, bikote eta partaideekin komunikazioa sustatzeko eta beraien asteroko esperientzia partekatzeke (16).

Psikoterapia interpersonala

Psikoterapia mota ezberdinak daude eta bat psikoterapia interpersonala da. Terapia mota hau depresioaren sintomen funtzionamenduan zentratzen da bereziki. Sintoma hauen etiologia biologikoa edota psikologikoa izateaz gain, soziala da ere bai. Horregatik, terapia mota hau interakzio sozialetan zentratzen da gehienbat, hauek

abordatuz. Zehazki, rolen trantsizioan, erlazio ezberdinetan dauden gatazken konponketan eta harreman sozial kopuru/kalitatearen murrizketaren maneian laguntzen zaio emakumeari. Terapian hainbat metodo erabiltzen dira, adibidez, informazio-ematea, zalantzak argitzea, komunikatzeko moduen analisia, rolen jokoa, eztabaida eta ideien zaparrada. Oro har, modu askotara egin daiteke, adibidez, osasun-zentroan erizainak emakumeari ordu bateko bost saio eman ahal dizkio, haurdunaldi bukaeran hasiz eta erdiondoko lehen hilabetean amaituz (8, 9).

Terapia kognitibo-konduktuala

Halaber, beste psikoterapia mota bat terapia kognitibo-konduktuala da. Zehazki, praktika kognitibo-konduktuala pentsamendu edota uste negatibo/okerrak antzeman, beraien patroiak birbaloratu eta jokabide berriak sortzean datza. Baita, terapia honetan, estresa eta antsietatea maneiatzen eta egoera ezberdinetara egokitzen ikasten da ere (3). Hasteko, praktika hau nola egin eta erdiondoko depresioaren kausa eta sintomak azaltzen dira. Eta ondoren, pentsamenduek emozioetan eta beste pertsonen iritziek gure umore, gorputz eta jokabideetan duten eragina ikusarazten da. Hau guztia praktikan jartzeko, etxeko lanak bidaltzen dira, hala nola, pentsamendu eta sentimendu ezberdinek bakoitzarengan zein efektu duten antzematea eta zuzentzen saiatzea, gero terapian azaltzeko. Terapia hau, adibidez, erizainak haurdunaldiko azken hilabetean, taldeka, osasun-zentroan eta lau saiotan eman ahal dezake, bakoitza ordu bat eta erdikoa izanik eta saio batetik bestera aste bateko tartea utziz (17).

Pertsonarengan fokuratzean oinarrituriko psikoterapia

Era berean, pertsonarengan fokuratzean oinarrituriko psikoterapia pertsonak bere zailtasunak beste pertsona batekin esploratzean oinarritzen da. Beste pertsona honek epaitu gabe entzun eta enpatiarekin hausnartzen du. Baita, pertsonari gai dela sentiarazi eta bere larritasuna kudeatzeko eta berezko konponbideak aurkitzeko gaitasuna erraztu behar dio ere. Normalean, terapia hau haurdunaldian edota ondoren, indibidualki, etxean edo kontsultan eta psikoterapeuten bidez jasotzen da (9).

Konponbideetan zentratutako aholkularitza

Psikoterapiekin amaitzeko, konponbideetan zentratutako aholkularitzak bakoitzaren gabezia edota desgaitasunetan zentratu ordez, gaitasun eta lorpenetan zentratzen laguntzen du. Baita, gai aldakorren zentratzen da ere, aldaezinetan ordez. Lehenik, praktika hau nola egin eta erdiondoko depresioaren kausa eta sintomak

azaltzen dira. Ondoren, pertsonari arazoren bat esaldi eta hitz batean definitzeko esaten zaio. Gero, helburu eta helmugak zehazten dira. Eta azkenik, arazoei soluzio errealistak jartzen zaizkie eta analizatu egiten dira. Baita, psikoterapia honetan ere, etxeko lanak bidaltzen dira, etxean praktika hau egin eta gero terapiari azaltzeko. Terapia hau, adibidez, haurdunaldiko azken hiruhilekoan, taldeka eta osasun-zentroan eman ahal dezake emaginak; eta hiru saiokoa izan daiteke, bakoitza ordu bat eta erdikoa izanik eta aste bateko tarteak utziz saio batetik bestera (17).

4.1.3. Beste mota batzuetako interbentzioak

Ariketa fisikoa

Interbentzio psikosozial eta psikologikoen gain, erdiondoko depresioa saihesteko beste mota batzuetako interbentzioak daude, ariketa fisikoa egitea, adibidez. Izan ere, ariketa fisikoak haurdunaldian eta erdiondoan estresa eta antsietatea gutxitzen eta ongizate biopsiko-soziala handitzen du, eta ondorioz, etorkizunean agertu daitezkeen depresio sintomak saihestu edota murriztu ahal ditu (4). Horregatik, Obstetra eta Ginekologoen Estatu Batuetako Eskolak gomendatzen du gutxienez asteko bost egunetan 20-30 minutuko ariketa fisiko arin-moderatua egitea. Beraz, erizain/emaginek emakumeak haurdunaldian eta erdiondoan ariketa fisikoa egitera bultzatu behar dituzte, bere onurak azalduz. Gainera, ariketa fisikoa egiteko programak sortu eta erizain/emagin aditu, fisioterapeuta edota instruktoreek eskaini ahal ditzakete osasun-zentroan. Saio hauetan, ariketa fisiko aerobikoa egiteko modu ezberdinak eta bere onurak azaltzeaz gain, bizkarra eta pelbisa egonkortzeko eta trebatzeko ariketak irakasten eta praktikatzen dira. Gehituz, programa hauek 1-4 hilabete irauten dute, baina, profesionalaren arabera, iraupena eta edukia ezberdina da. Adibidez, haurdunaldiko bigarren hiruhilekoan hasita, 16 astez eta asteko hiru egunetan, emaginarekin 60 minutuko ariketa fisiko aerobikoa praktikatzen den programa egin daiteke (3).

Edoskitzea

Baita, edoskitzeak ere erditu ondorengo depresioa jasateko arriskua murrizten du, eragiten dituen aldaketa hormonalak direla-eta. Izan ere, ematen diren prozesu hormonalek kortisol mailak erregulatzen dituzte, eta ondorioz, estres mailak gutxitzen, esna-loaren zikloak erregulatzen eta ama-haurraren interakzioa hobetzen dira. Beraz, erizain/emaginek praktika hau gomendatu eta nola egin erakutsi behar du, emakumea bularra-ematera bultzatuz (4). Horretarako, emaginek osasun-zentroan, taldeka, bularramate heziketa-saiokak eskaini eta ondorengo azaldu dezakete: edoskitzearen onurak, teknika egokia, bularraren zainketak, esnea kontserbatzeko eta prestatzeko arauak eta

emate-unea eta maiztasuna jakiteko haurraren zeinuak. Hala ere, heziketa hauen iraupena eta edukia emaginaren arabera da; baina, normalean, erditu aurreko hilabetean, ordu bateko saio bat egiten da. Horrez gain, haurra jaiotakoan, emaginak bularra-emate teknika baloratu eta zuzendu behar du (18).

Erditzean derrigortze informala saihestea

Azkenik, erdiondoko depresio askoren eragilea erditzean jasandako derrigortze informalak dira; hauek haurduna ados ez dagoen eta derrigortuz (kontra eginez, ikaratzuz edota manipulatzuz) onartzea egin dioten interbentzio obstetrikoak dira. Beraz, derrigortze informala saihestea erdiondoko depresioaren prebentzio-neurri bat da. Horretarako eta erditze-esperientzia hobea izateko, beharrezkoa da ospitaleko emagin eta ginekologoarekin ondo informaturiko eztabaida bat izatea, non interbentzio obstetrikoak eta beraien arrazoi eta ondorioak argi azaltzen diren. Eztabaida honetan, emakumeak interbentzio hauetarako baimena eman dezake edo ez. Lagungarria da ere bai, haurdunaldiko azken hilabetean, osasun-zentroko emaginak, taldean, ordu bateko heziketa ematea, erditze ezberdinak eta beraien arrazoi eta ondorioak azaltzeko (19).

4.2. Aurretik azaldutako erizaintza-zainketen eraginkortasuna erditu ondorengo depresioa saiheste aldera

Eraginkortasuna aztertzen hasteko, Dennis *et al.*ek (8) baieztatu dute interbentzio psikosozial eta psikologikoen erditu ondorengo depresioa saihestu ahal dutela. Izan ere, interbentzio hauek efektu babesle esanguratsua dute, etorkizuneko erditu ondorengo depresioaren sintomak murriztuz (Arrisku Erlatiboa (RR)= 0,78, IC= % 95: 0,66-0,93). Jarraian, aurretik azaldutako interbentzio bakoitzaren eraginkortasuna azalduko da (*ikus 7. eranskina*).

Bizi-estiloan oinarrituriko guraso izateko prestakuntzaren heziketa

Lehenik eta behin, bizi-estiloan oinarrituriko guraso izateko prestakuntzaren heziketari dagokionez, Maimburg *et al.*ek (6) ondorioztatu dute heziketa hau ez dela eraginkorra emakume nuliparoetan; izan ere, ez zen alderik egon erditu ondorengo depresioa jasan zuten emakume-kopuruan (Odds Ratio: (OR)= 0,89, CI= % 95: 0,57-1,40). Era berean, Morrell *et al.*ek (9) adierazi dute, gaitza jasateko arriskua daukaten emakumeei eskaintako interbentzio onuragarriena heziketa hau dela, baina, emaitza ez da estatistikoki esanguratsua (OR= -1,32, IC= % 95: -3,54-1,10). Aldiz, Sanaati *et al.*ek (10) emaitza esanguratsuekin ziurtatu dute heziketa honek depresioaren puntuazioak jaisten

dituela (Ezberdintasun Esanguratsua (MD)= -3,2, CI= % 95: -5,1--1,3 eta $p < 0,001$) eta bikotearekin batera jasoz oraindik gehiago (MD= -5,5, CI= % 95: -7,3--3,6 eta $p < 0,001$).

Depresioari buruzko heziketa

Depresioaren inguruan informatzen duten heziketak direla-eta, McCarter-Spaulding *et al.*ek (11) egiaztatu dute heziketa hau alta-garaian eskainiz ez dela eraginkorra. Izan ere, 6. astean, interbentzioa jaso zuen taldearen EPDS-aren puntuazioa 8-koa izan zen ($p = 0,165$); eta ondoren, 3. eta 6. hilabeteetan, 13 eta 15-ekoa izan ziren ($p = 0,105$ eta $p = 0,172$). Aldiz, Top *et al.*ek (5) esan dute heziketa mota hau erdiondoan eskainita eraginkorra dela, interbentzioa jaso zuen taldearen EPDS-aren puntuazioa ($p = 0,000$) eta erdiondoko depresioaren ratioa ($p = 0,015$) esanguratsuki baxuagoak izan zirelako.

“Mindfulness”-ean oinarrituriko heziketa

Jarraituz, “Mindfulness”-ari dagokionez, Duncan *et al.*ek (12) adierazi dute “mindfulness”-ean oinarrituriko erditze-heziketa jasotzen duten emakumeek erditu ondorengo depresio sintoma gutxiago dituztela. Izan ere, interbentzioa jaso zutenen EPDS-ko puntuazioak jaisten joan ziren, eta interbentzioa amaitu zenetik erdiondora arte sintomarik gabe mantendu ziren (-3,34 puntu, IC= % 80: -5,22--1,28). Oro har, Pan *et al.*ek (13) interbentzioa etorkizuneko estres- eta depresio-mailak murriztean eraginkorra dela azpimarratu dute ($F = 7,19$, $p = 0,009$ eta $F = 7,36$, $p = 0,008$). Modu berean, Pérez *et al.*ek (3) interbentzio hau baliagarria dela ziurtatu dute ($p = 0,008$).

Erdiondoko erizain eta emaginen etxeetako bisita intentsiboak

Gehituz, erdiondoko erizain eta emaginen etxeetako bisita intentsiboei dagokienez, Dennis *et al.*ek (8) emaitza esanguratsuekin frogatu dute bisita hauek erdiondoko depresioaren babes-faktoreak direla (RR= 0,56, IC= % 95: 0,43-0,73).

Interbentzio telemedikoak

Oro har, Hanach *et al.*ek (14) ondorioztatu dute interbentzio telemedikoak erdiondoan eskainiz erditu ondorengo depresioaren sintomatologia murrizten dutela (OR= -1,81, IC= % 95: -2,68--0,93, $P < 0,0001$). Gainera, mugikor bidezko interbentzioek webgune bidezkoek baino efektu gehiago dutela azpimarratu dute (MD: -2,26, IC= % 95: -3,76--0,77, $P = 0,003$ eta MD: -1,17, IC= % 95: -1,80--0,55, $P = 0,0002$). Modu berean, Dennis *et al.*ek (8) egiaztatu dute mugikor bidezko babes prebentziorako esperantzagarria dela (RR= 0,54, IC= % 95: 0,38-0,77). Halaber, Lavender *et al.*ek (15) frogatu dute EPDS-aren puntuazioak txikiagoak direla gaitza jasateko arriskua daukaten emakumeetan,

telefono-deiak haurdunaldian eta erdiondoan emanez gero (MD= -0,96, CI= % 95: -1,75-0,17).

Psikoterapia interpertsonala

Halaber, Dennis *et al.*ek (8) psikoterapia interpertsonala esperantzagarri gisa definitu dute, emaitza esanguratsu batekin (MD= -0,27, IC= % 95: -0,52--0,01). Modu berean, Morrell *et al.*ek (9) ondorioztatu dute interbentzio hau prebentziorako onuragarria dela gaitza jasateko arriskua daukaten emakumeetan, baina, emaitza ez da estatistikoki esanguratsua (OR= -1,85, IC= % 95: -5,60-2,14).

Terapia kognitibo-konduktuala

Orobat, Morrell *et al.*ek (9) terapia kognitibo-konduktuala populazio orokorrean onuragarria dela azpimarratu dute, baina, emaitza ez da estatistikoki esanguratsua (OR= -0,78, Konfiantza-tartea (IC)= % 95: -3,41-1,91). Era berean, Dennis *et al.*ek (8) ez dute estatistikoki esanguratsua den emaitzarik aurkitu interbentzio honentzat (RR= 0,74, IC= % 95: 0,29-1,88). Aldiz, Ramezani *et al.*ek (17) emaitza esanguratsuekin ondorioztatu dute erditu aurretik jasotako aholkularitza kognitibo-konduktualak gaitza jasaten duten emakume-kopurua murrizten duela (Khi-karratu= 8,3, p= 0,016). Modu berean, Okatsau *et al.*ek (20) emaitza esanguratsuekin egiaztatu dute haurdunaldian eta ondoren jasotako terapia kognitibo-konduktualak erditu ondorengo depresioaren etorkizuneko sintomatologia (Hedge's g= 0,23, IC= % 95: 0,00-0,46) eta prebalentzia (OR= 0,63, IC= % 95: 0,41-0,97) murriztu ahal duela. Baita, Pérez *et al.*ek (3) ere datu esanguratsuekin baieztatu dute interbentzio honek gaitzaren prebalentzia murrizten duela (OR= 0,75, IC= % 95: 0,58-0,96, p= 0,024).

Pertsonarengan fokuratzean oinarrituriko psikoterapia

Ildo beretik, Morrell *et al.*ek (9) pertsonarengan fokuratzean oinarrituriko interbentzioak onuragarriak direla esan dute, baina, emaitzak ez dira estatistikoki esanguratsuak (OR= -0,97, IC= % 95: -3,54-1,71).

Konponbideetan zentratutako aholkularitza

Konponbideetan zentratutako aholkularitzari dagokionez, Ramezani *et al.*ek (17) erditu ondorengo depresioa jasaten duten emakume-kopurua murrizten duela baieztatu dute (Khi-karratu= 8,3, p= 0,016).

Ariketa fisikoa

Ariketa fisikoari dagokionez, Pérez *et al.*ek (3) emaitza esanguratsuekin ondorioztatu dute ariketa fisikoak efektu babeslea duela arriskua daukaten emakumeetan, etorkizuneko sintomatologia murrizten duelako ($Z = -6,501$, $p = 0,001$). Aldiz, populazio orokorrari dagokionez, ez dute estatistikoki esanguratsua den emaitzarik lortu ($OR = 0,65$, $IC: \% 95: 0,33-1,28$, $p = 0,21$).

Edoskitzea

Ari beretik, Toledo *et al.*ek (18) edoskitzea praktika errentagarri, osasungarri eta depresioa izateko arriskua murrizteko baliagarri modura definitzen dute. Izan ere, erdiondoko depresioa jasateko arriskuaren puntuazioa baxuagoa da bularra ematen duten emakumeetan ($p < 0,001$). Horrez gain, geroz eta aste gehiago eman bularra, geroz eta txikiagoa da gaitz hau jasateko arriskua ($p < 0,002$).

Erditzean derrigortze informala saihestea

Bukatzeko, Oelhafen *et al.*ek (19) estatistikoki esanguratsuak diren emaitzekin frogatu dute derrigortze informala bizi izanak erdiondoko depresioa izateko arriskua handitzen ($RR = 1,35$, $IC = \% 95: 1,19-1,54$) eta erditzeko gogobetetze-maila jaisten ($\beta = -7,52$, $IC = \% 95: -8,63--6,41$) duela. Beraz, hau saihesteko neurriak hartzea gaitzarekiko babes-faktorea da.

5. EZTABAIDA

Erdiondoko depresioa saihesteko interbentzio ezberdinen inguruan iritzi eta emaitza kontrajarri asko dago. Izan ere, ikerketa bakoitzean ezberdinak dira interbentzioaren emate-unea, populazioa, emakume-kopurua, iraupena, edukia, emaila eta eraginkortasuna; hau da, ez daude bateratuta.

Interbentzio bakoitzean zentratuak, lehenik eta behin, bizi-estiloan oinarrituriko guraso izateko prestakuntzaren heziketa modu ezberdinetan egiten da. Iraupenari dagokionez, 3-10 eguneko aldakortasuna dago. Gehituz, batzuetan informazio-liburuxkak banatzen dira eta bikoteei telefono-deiak egiten zaizkie; eta aldiz, beste batzuetan ez. Eraginkortasunari dagokionez, iritzi kontrajarriak daude ere bai (6, 10).

Halaber, depresioari buruzko heziketari dagokionez, emate-unearen inguruan hainbat iritzi kontrajarri dago. Spaulding *et al.*ek (11) ondorioztatu dute alta-garaian 20 minututan emandako heziketaren porrota heziketa eskainitako momentuagatik dela. Izan ere, alta-garaian, erizainak, emakumea eta bikotea lanpetuta egoten dira eta heziketa distrazioz inguratua izaten da. Horrez gain, emakumea oso nekatuta egoten da eta heziketak efektu negatiboak izan ditzake. Beraz, aipatu dute eraginkorragoa dela erditu aurreko ospitalizazioan emandako eta alta-garaian indartutako heziketa bat. Aldiz, Top *et al.*ek (5) azpimarratzen dute eraginkorragoa dela interbentzioa erdiondoan ematea, etxeko bi bisitetan, heziketa zabal bat eskainiz.

Oro har, "mindfulness"-ari dagokionez, heziketa batetik bestera iraupenaren aldakortasuna handia da, zehazki, 2-8 saiokoa (12, 13).

Baita, erdiondoko erizain eta emaginen etxeetako bisita intentsiboak egiteko modua ere ez dago bateratuta; hau da, profesional bakoitzak erabakitzen du bisiten momentua, edukia, iraupena, maiztasuna eta baloratu eta informatu beharrekoa. Batzuek, urrutiko amaiera duten, baina, tarte zabala duten bisitak egiten dituzte; adibidez, bisitak astean behin eginez erdiondoko lehen astetik seigarren astera arte, ondoren, bi astez behin 12. astera arte, eta azkenik, hilabetero 52. astera arte. Eta beste batzuek, bisita jarraigoak, baina, amaiera gertu dutenak, egiten dituzte; adibidez, erdiondoko lehen 28 egunetan bisitatzerako egunero joanez (8).

Interbentzio telemedikoei dagokienez, profesional bakoitzak ezberdin erabiltzen ditu; izan ere, bakoitzak erabakitzen du deien unea, maiztasuna, edukia eta webguneak edota aplikazioak gomendatu edo ez. Horrez gain, Hanach *et al.*ek (14) azpimarratu dute interbentzioa eraginkorragoa dela erdiondoan eta populazio orokorrari eskainiz; aldiz, Lavender *et al.*ek (15) interbentzioa haurdunaldian eta ondoren eta gaitza jasateko arriskua daukaten emakumeetan eskaintzea proposatzen dute.

Gehituz, psikoterapia interpertsonalari dagokionez, Morrell *et al.*ek (9) soilik gaitza jasateko arriskua daukaten emakumeetan eskaintzea proposatzen dute; aldiz, Dennis *et al.*ek (8) populazio orokorrean. Gainera, terapia hau emateko hainbat modu deskribatzen dira; emaginak/erizainak edo psikologoak eskainiz, taldeka edo indibidualki, haurdunaldian edota erdiondoan eta 2-16 saio emanez (8, 21).

Halaber, terapia kognitibo-konduktuala dela-eta, Ramezani *et al.*ek (17) azpimarratu dute terapia hau erditu aurretik jasoz eraginkorra dela; aldiz, Okatsau *et al.*ek (20) haurdunaldian eta ondoren eskaintzea proposatzen dute. Jarraituz, interbentzioa Ramezani *et al.*ek (17) emakume nuliparoetan eta Perez *et al.*ek (3) gaitza jasateko arriskua daukaten emakumeetan ematea azpimarratzen dute; aldiz, Morrell *et al.*ek (9) populazio orokorrean. Baita, interbentzio honen eraginkortasunaren inguruan ere iritzi kontrajarriak daude, izan ere, Morrell *et al.* (9) eta Dennis *et al.*ek (8) ez dute emaitza esanguratsurik aurkitu; aldiz, Ramezani *et al.* (17), Okatsau *et al.* (20) eta Perez *et al.*ek (3) interbentzioa eraginkorra dela egiaztatu dute. Gainera, emailea batzuetan psikologoa da, eta beste batzuetan, erizaina edo emagina; eta iraupena 3-12 saioen artekoa da (20).

Jarraituz, batzuek pertsonarengan fokuratzean oinarrituriko interbentzioak populazio orokorrari eskaintzeko proposatzen dute; aldiz, beste batzuek gaitza jasateko arriskua daukaten emakumeei (9). Horrez gain, interbentzio honen eta konponbideetan zentraturiko aholkularitzaren emailea, emate-unea, iraupena eta emakume-kopurua ezberdina izan ohi da (9, 17).

Ariketa fisikoari dagokionez, Pérez *et al.*ek (3) esan dute ariketa egitea eraginkorra dela gaitza jasateko arriskua daukaten emakumeetan, baina, ez populazio orokorrean. Aldiz, Marmik (4) ondorioztatu du ariketa fisikoak efektu babeslea populazio orokorrean duela. Horrez gain, ariketa fisikoa egitera bultzatzeko modua ez dago bateratuta, hau da, profesional bakoitzak erabakitzen du nola eta noiz gomendatu. Gauza bera gertatzen da programekin, zentro batetik bestera, hauen iraupena, edukia eta profesionala asko

aldatzen da (3). Modu berean, edoskitzea bultzatzeko heziketa-saioen iraupena eta edukia profesionalaren arabera da ere bai (18).

Bukatzeko, derrigortze informalak direla-eta, iritzi kontrajarri asko daude. Izan ere, askotan, derrigortze informalak erditze-garaian ustekabeen sortutako konplikazioak konpontzeko erabiltzen dira, emakumeari galdetu gabe. Beraz, ama edota haurraren osasunaren hobe beharrez erditze-prozesuan interbentzio obstetrikoren bat behar bada, eta emakumeak ez badu onartzen, behar bada ama edota haurraren bizitza arriskuan jar daiteke. Kasu honetan, batzuen ustez, haurra galtzeko arriskua dagoela esatea emakumea ikaratz interbentzioa egitera bultzatzea da, derrigortze informala erabiliz; aldiz, beste batzuen ustez, hori da egin beharrekoa (19).

6. ONDORIOAK

Ondorioztatuz, azaldutako interbentzio guztiak onuragarriak dira erdiondoko depresioa saiheste aldera; izan ere, aztertutako ikerketetan baieztatu da interbentzio ez-farmakologiko hauek gaitzaren prebalentzia eta larritasuna murrizten dutela. Hala ere, ez dago nahikoa ebidentzia zainketa hauek martxan jartzeko, hau da, hauen eraginkortasuna ziurtatzen duten eskala handiagoko ikerketa gehiago behar dira. Horrez gain, ikusi da interbentzio hauek egiteko modu eta hauen inguruko iritzi ezberdinak daudela; beraz, baliagarria izango litzateke interbentzio bakoitza egiteko modu egokiena ikertzea, eta ondoren, emate-irizpideak bateratzea. Oro har, erizainek lehen mailako prebentzio hau emateko gaitasun handia daukatela ondorioztatu da ere bai; beraz, interbentzio hauen emaitzak erizain orokorrak, emaginak eta osasun mentaleko erizainak izan daitezke. Hala ere, egokia izango litzateke beste profesional batzuekin batera lan egitea, talde multidiziplinar moduan; hala nola, psikologo eta ariketa fisikoko eta “mindfulness”-eko adituekin. Amaituz, hau guztia kontuan harturik, garrantzia handiko gaitz honen prebalentzia jaitsi daiteke, emakumeei amatasun osasuntsu eta oparo bat izatea ahalbidetuz.

7. BIBLIOGRAFIA

1. Viana MDZS, Fettermann FA, Cesar MBN. Nursing strategies for the prevention of post-birth depression. R. pesq.: cuid. fundam. [Internet]. 2020 [konsulta data: 2022/11/16]; 12: 953-957. DOI: <https://doi.org/10.9789/2175-5361.rpcfo.v12.6981>.
2. Osasunaren Mundu Erakundea [Internet]. Ginebra; 2021 [konsulta data: 2023/01/05]. Depresión; [7 pantaila ggb]. Erabilgarri: <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/depression>.
3. Pérez G, Ortiz D, Niño DA, Gómez LH, Bayona KV. Eficacia de las intervenciones no farmacológicas en la prevención de la depresión posparto: una revisión sistemática de los resultados en gestantes con y sin factores de riesgo. MÉD.UIS [Internet]. 2021 [konsulta data: 2022/11/16]; 34(1): 73-90. DOI: <https://doi.org/10.18273/revmed.v34n1-2021008>.
4. Marmi M. Atención y actuación de enfermería frente a la depresión postparto. Musas [Internet]. 2017 [konsulta data: 2022/11/16]; 2(1): 57-85. DOI: <https://doi.org/10.1344/musas2017.vol2.num1.4>.
5. Top ED, Karaçam Z. Effectiveness of structured education in reduction of postpartum depression scores: A quasi-experimental study. Arch Psychiatr Nurs [Internet]. 2016 [konsulta data: 2022/11/16]; 30(3): 356-362. DOI: [10.1016/j.apnu.2015.12.009](https://doi.org/10.1016/j.apnu.2015.12.009).
6. Maimburg RD, Vaeth M. Postpartum depression among first-time mothers-results from a parallel randomised trial. Sex Reprod Healthc [Internet]. 2015 [konsulta data: 2022/11/15]; 6(2): 95-100. DOI: [10.1016/j.srhc.2015.01.003](https://doi.org/10.1016/j.srhc.2015.01.003).
7. Campos-Asensio C. Búsqueda de información en enfermería. Fuentes y recursos. Enferm Intensiva [Internet]. 2018 [konsulta data: 2022/12/08]; 29(3): 138-142. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.enfi.2018.04.003>.
8. Dennis CL, Dowswell T. Psychosocial and psychological interventions for preventing postpartum depression. Cochrane Database Syst Rev [Internet]. 2013 [konsulta data: 2022/11/15]; (2): CD001134. DOI: [10.1002/14651858.CD001134.pub3](https://doi.org/10.1002/14651858.CD001134.pub3).
9. Morrell CJ *et al.* A systematic review, evidence synthesis and meta-analysis of quantitative and qualitative studies evaluating the clinical effectiveness, the cost-effectiveness, safety and acceptability of interventions to prevent postnatal depression. Health Technol Assess [Internet]. 2016 [konsulta data: 2022/11/15]; 20(37): 1-414. DOI: [10.3310/hta20370](https://doi.org/10.3310/hta20370).

10. Sanaati F, Charandabi SM, Eslamlo HF, Mirghafourvand M. A randomized controlled trial on the effect of lifestyle education for Iranian women and their husbands on post-partum anxiety and depression. *Health Educ Res* [Internet]. 2018 [kotsulta data: 2022/11/16]; 33(5): 416-428. DOI: [0.1093/her/cyy026](https://doi.org/10.1093/her/cyy026).
11. McCarter-Spaulling D, Shea S. Effectiveness of discharge education on postpartum depression. *MCN Am J Matern Child Nurs* [Internet]. 2016 [kotsulta data: 2022/11/15]; 41(3): 168-172. DOI: [10.1097/NMC.000000000000236](https://doi.org/10.1097/NMC.000000000000236).
12. Duncan *et al.* Benefits of preparing for childbirth with mindfulness training: a randomized controlled trial with active comparison. *BMC Pregnancy and Childbirth* [Internet]. 2017 [kotsulta data: 2022/11/15]; 17(1): 140. DOI: [10.1186/s12884-017-1319-3](https://doi.org/10.1186/s12884-017-1319-3).
13. Pan WL, Chang CW, Chen SM, Gau ML. Assessing the effectiveness of mindfulness-based programs on mental health during pregnancy and early motherhood-a randomized control trial. *BMC Pregnancy Childbirth* [Internet]. 2019 [kotsulta data: 2022/11/15]; 19(1): 346. DOI: [10.1186/s12884-019-2503-4](https://doi.org/10.1186/s12884-019-2503-4).
14. Hanach N, de Vries N, Radwan H, Bissani N. The effectiveness of telemedicine interventions, delivered exclusively during the postnatal period, on postpartum depression in mothers without history or existing mental disorders: A systematic review and meta-analysis. *Midwifery* [Internet]. 2021 [kotsulta data: 2022/11/15]; 94: 102906. DOI: [10.1016/j.midw.2020.102906](https://doi.org/10.1016/j.midw.2020.102906).
15. Lavender T, Richens Y, Milan SJ, Smyth RM, Dowswell T. Telephone support for women during pregnancy and the first six weeks postpartum. *Cochrane Database Syst Rev* [Internet]. 2013 [kotsulta data: 2022/11/16]; (7): CD009338. DOI: [10.1002/14651858.CD009338.pub2](https://doi.org/10.1002/14651858.CD009338.pub2).
16. Pessagno RA, Hunker D. Using short-term group psychotherapy as an evidence-based intervention for first-time mothers at risk for postpartum depression. *Perspect Psychiatr Care* [Internet]. 2013 [kotsulta data: 2022/11/16]; 49(3): 202-209. DOI: [10.1111/j.1744-6163.2012.00350.x](https://doi.org/10.1111/j.1744-6163.2012.00350.x).
17. Ramezani S, Khosravi A, Motaghi Z, Hamidzadeh A, Mousavi SA. The effect of cognitive-behavioural and solution-focused counselling on prevention of postpartum depression in nulliparous pregnant women. *J Reprod Infant Psychol* [Internet]. 2017 [kotsulta data: 2022/11/15]; 35(2): 172-182. DOI: [10.1080/02646838.2016.1266470](https://doi.org/10.1080/02646838.2016.1266470).
18. Toledo C *et al.* The significance of breastfeeding practices on postpartum depression risk. *Public Health Nurs* [Internet]. 2022 [kotsulta data: 2022/11/16]; 39(1): 15-23. DOI: [10.1111/phn.12969](https://doi.org/10.1111/phn.12969).

19. Oelhafen S, Trachsel M, Monteverde S, Raio L, Cignacco E. Informal coercion during childbirth: risk factors and prevalence estimates from a nationwide survey of women in Switzerland. *BMC Pregnancy Childbirth* [Internet]. 2021 [kotsulta data: 2022/11/16]; 21(1): 369. DOI: [10.1186/s12884-021-03826-1](https://doi.org/10.1186/s12884-021-03826-1).
20. Okatsau A, Aoyama S, Yamaji N, Kataoka Y. Cognitive behavioral therapy in perinatal mental health: An overview of systematic reviews. *Jpn J Nurs Sci* [Internet]. 2022 [kotsulta data: 2022/11/15]; 19(4): e12501. DOI: [10.1111/jjns.12501](https://doi.org/10.1111/jjns.12501).
21. Alderdice F, McNeill J, Lynn F. A systematic review of systematic reviews of interventions to improve maternal mental health and well-being. *Midwifery* [Internet]. 2013 [kotsulta data: 2022/11/16]; 29(4): 389-399. DOI: [10.1016/j.midw.2012.05.010](https://doi.org/10.1016/j.midw.2012.05.010).

8. ERANSKINAK

1. **Eranskina.** PIO/PICO egituran oinarrituz, bilaketa bibliografikoa egiteko erabilitako hitz gako eta deskriptoreak.

Atalak	Hitz gakoak			Deskriptoreak	
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelesez	DeCS	MeSH
Pazientea /arazoa (P)	Emakume haurdunak edo erdiberriak	Mujer	Women	Mujeres	Women
Interbentzioa (I)	Erizaintza-eta emagintza-zainketak	Enfermera y enfermero Enfermera matrona	Nurse Midwife	Enfermeras y enfermeros Enfermeras obstetricas	Nurses Nurse Midwives
Emaitzak (O)	Erditu ondorengo depresioa saihestea	Depresión postparto Prevención	Postpartum depression Prevention	Depresión posparto Prevención primaria	Depression, Postpartum Primary Prevention

Iturria: propioa.

2. **Eranskina.** Datu-baseetako emaitzei aplikatutako barneratze- eta baztertze-irizpideak.

Barneratze-irizpideak	Baztertze-irizpideak
<ul style="list-style-type: none"> -Zainketak jasotzen dituztenak emakume haurdunak edo erdiberriak izatea. -Erditu ondorengo depresioaren lehen mailako prebentzio-neurriak eta beraien eraginkortasuna azaltzea. -Zainketak eman edota gomendatzen dituen erizaina (emagina, ama-haur unitateko erizaina, Lehen Arreta Mailako erizaina, osasun mentaleko erizaina...) izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> -Emakume edota haurrak arazo fisiko, mental edota sozialen bat izatea. -Bakarrik emakume nerabeei zuzendurikoa izatea. -Herrialde azpigaratuko emakumeak izatea. -Soilik erditu ondorengo depresioaren detekzio edota tratamenduari buruz hitz egitea. -Interbentzio medikoak soilik azaltzea. -Erditu ondorengo depresioa bikotean izatea.

Iturria: propioa.

3. Eranskina. Datu-baseetan egindako bilaketa bibliografikoaren emaitzak.

DATU BASEA	BILAKETA-ESTRATEGIA	EMAITZAK	EMAITZAK IRAGAZKIAK APLIKATUTA	EMAITZAK BARNERATZE-ETA KANPORATZE-IRIZPIDEAK APLIKATUTA
PubMed	(Women*) AND ((Nurse*) OR (Midwife*)) AND ((Prevention) AND ("Depression, Postpartum"[Mesh]))	210	120	16
Cuiden	[res= Mujer] and ([res= Enfermera y enfermero] or [res= Enfermera matrona]) and ([res= Depresión posparto] and [res= Prevención])	1	1	1
	([res= Women]) and ([res= Nurse] or [res= Midwife]) and ([res= Prevention] and [res= Postpartum depression])	2	1	1 (errepikatuta)
Dialnet	"Depresión postparto" AND Prevención	9	7	1 (errepikatuta)
	"Postpartum depression" AND Prevention	12	11	2 (1 errepikatuta)

DATU BASEA	BILAKETA-ESTRATEGIA	EMAITZAK	EMAITZAK IRAGAZKIAK APLIKATUTA	EMAITZAK BARNERATZE-ETA KANPORATZE-IRIZPIDEAK APLIKATUTA
